

PuLunPe

136. ZeNBaKia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Olerkia

PENTAGRAMA

DO, KOKOTERAINO NAGO, BESTEAK BESTE, JUSTIZIA GELDO.

RE, BEHARKO DUGU ZERBAIT ERRE.

MI, "AHAL DUGU", BATZURI ITXAROPENA ESKAINI.

FA, ZIKLOIA ARI DA BIHURTZEN USTELKERIAREN

UFA.

SOL, KATALUNYARRA ALA ESPAINOL?

LA, BETI PRESAKA, NORA?

SI, BERRIZ ERE PATERA ERAULI.

DO, "SENTITZEN DUT, EZ DA BERRIRO GERTATUKO"

DO, RE, MI, FA, SOL,

LA...

EUTSI! KEN EZ DIEZAGUTEN

IRRIFARRA.



Joxe Joakin Gartzaron, Exkurdi

lgandea, euria eta negu usaina. Gaur Oskotza joan gara bertako gure banatzailearekin egotera. Bazkalaurrea da eta herriko elkartearen topatu dugu.

Gizon azkarra dugu Joxe Joakin. Indartsua. Baita hizketan ere. Bere usteak, bere iritziak argi eta indarrez esanen dizkizu. Eta oroitzapenak? Horiek atzo gertatu balira bezala, txertatuak bezala ditu bere oroimenean.

Oskotzen beste asko bezala, ezagunagoa da bere ezizenez, Exkurdi.

Joxe Joakin, zergatik deitzen ditek Exkurdi.

Bai, hemen eta nonahi ere Exkurdi deitzen zidatek. Hemezortzi urte nituela, mutil joan nuden Eltsora, Exkurdi etxera. Etxe famatua. Bertako nagusia azienta tratante handia huen. Alderdi honetan handiena. Bertatik, Exkurdi, ezizena.

Baina denbora laburra egin huen bertan.

Bai, urte bat edo. Gero mendian hasi nuden. Lehenik hemen eta gero Frantzia. Urte batzuek Doneztebeko Mariezkurrena kontratista handiarendako.

Hiru anaia beren kontu aritu ziren urte batzuek. Alkoko beste bi lagunekin.

Gero anaia bat Leitzako fabrikari hasi eta laster denak bide beretik, denak utzi zuten mendia.

Eta hi, nekazari, esne behiekin lanean.

Bai, ni etxerako; hamabi behiekin hasi nuden. Baina, Mariezkurrena etorri zitzaion bere bila. Orduko ezkondua zegoen eta joateko eta joateko, enkaratu lanetan aritzeko, etxe bat jarriko ziela Frantzia.

Eta?

Hala esan nioken: Behiak txarrak ateratzen bazaizkit, bai, bestela hemen geldituko naiz.

Orduan, Nafarroako Diputazioa tuberkulina frogak

egiten ari zen, behitegiz behitegi, nahi bazen eta ez bazen, eta positibo ematen zuten azienta guztia kentzen, behin-betiko abelgorrien tuberkulosiarekin bukatu behar zela eta. Behitegi osoak eramaten zizuten hiltzera. Eta, harrigarria, Joxe Joakini denak onak atera. Frantzia irabazi handiak baina bere zaletasuna azientetan izaki eta hemen gelditu zen. Behiak hobetu, behi gehiago jarri...

-Bai, gutxiagatik gelditu nuden hemen.

Hik fama handia izaten huen azientadun bezala, behi onaz gain, behitegi ikaragarri txukuna izaten huen. Bakteriologian eta beti hoberenetakoa.

Bai, garbitasuna maite nian eta zer esanik ez Eltsoko behitegian ikasi ondoren. Izugarriak hituen han, izugarri txukunak. Eta nik hango ohiturak hartu, zer nauk esatea? Badakik urte batez bakteriologian Nafarroan hoberena izan nintzela? Diploma bat eman zidateken.

Bere bizitzako kontu asko kontatu digu baina hemen ez dugu tokirik gehiago aipatzeko.

Herrian eta kanpoan edozein lanetarako beti prest izaten den honi, Pulunpe banatzeko eskatu eta prest, baietz, banatuko zuela. Eta horretan ari da zintzo aski, bere 72 urtetan.

Joxe Joakin, Pulunpe banatzen; eta irakurtzeko eta afiziorik baduk?

-Bat ere ez, bat ere ez. Seme-alabak, berriz, ikaragarria. Haiek ikasten eta, horretan ditek afizioa eta nik behietan.

Denbora aurrera doa, bazkal garaia da eta etxera abiatu gara, Maritonebeitiko nagusiarekin luze iharduki ondoren. Hemen ere esan beharra dago, beste izen batez deitzen diotela etxe honi, Gallegoarena, baina hori beste historia bat da.

Segi bizkor orain arte bezala, Joxe Joakin!

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Eurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan eta Salsamendi.


Koordinatzailea: Iosu Martinez Urdaci

Argazkiak: Txurdan, Facebook sareko jendea, Saltsa Purrusta eta Urtebetetzetara bidaltzen dituzuenak.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: AMETZA - Lege gordailua: NA 721/93

2014KO ABENDUAREN 1AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



"JOLASA GURE AMETSAK EGI BIHURTZEKO AUKERA DA. GURE MUGAK ONARTZEKO, GURE MOMENTU GOGOENAK OSPATZEKO ETA FRUSTRAZIOAK ONARTZEKO... GUZTIRA, BIZITZA DATORREN BEZALA BIZITZEKO AUKERA DA, BATZUTAN BIZIA JOLASA DELA AHAZTEN DUGU AKO" Fidel Delgado

JOSTAILUEN EROSKETA ETA ERABILERA EGOKIENTZAKO GOMENDIOAK

1. Jostailuak erakargarriak izan behar dira behin baino gehiagotan erabiliak izan daitezten, arruntenak dibertigarrienak izan ohi dira.
2. Irudimena eta sormenaren garapena bultzatu behar dute, horretaz gain sen sentimenduak garatu behar dute.
3. Jostailua, ume bakoitzaren adin eta gustuetara egokitua egon behar da.
4. Ziurra izan behar da.
5. Estereotipo sexistak finkatzeko ez da erabilia izan behar.
6. Neska eta mutilek erabili ahal dituzte inolako bereizketarik gabe, eta bien artean erabiltzen badituzte kooperazio eta berdintasun baloreak barneratuko dituzte.
7. Sexu, etnia eta kulturen arteko desberdintasunak errespetatzera lagundu behar du jostailuak.
8. Ez ditu indarkeriadun portaerak bultzatu behar, hau da, guztiz kontrakoa, gizar-te baloreak eta pertsonalak bultzatu behar ditu.
9. Publizitatearen eragina ez izaten saiatu, zuk zeuk erabaki.
10. JOSTAILUA TRESNA BAT DA BAKARRIK, GARRANTZITSUENA JOLASA DA

EUSKARAK 365 EGUN

Aste honetan izan da Euskararen Nazioarteko Eguna, abenduaren 3a, beste urte batez euskaldunok ospatzekorik ote dugun galdetzen dugun eguna. Eta guk baietz diogu, badugula zer ospatua, euskaraz bizi nahi duen herria garela eta bagarela ospatu nahi dugula. Baditugu ospatzeko mila motibatu egunero; aurtengo euskararen egunetik aurrera, euskaldunon komunitateak sarean tresna berri eta indartsua du agertzeko PuntuEus domeinuari esker, urrats garrantzitsuak da; gainera, euskaltzaleen mugimendutik euskarazko

toki hedabide berriak sortu dira aurtengo eta gero eta lagun gehiagorengana heltzen ari da euskarazko informazioa. Egunero, han-hemenka, jende askok egiten du euskaldun bizitzeko urrats praktikoak emateko hautua, eta hori ere ospatu nahi dugu. Euskaraz biziko diren etxeak, kaleak, auzoak eta herriak nahi ditugu eta horregatik atera gara aurtengo ere plazara, ospatzera, bai, baina baita aldarrikatzera ere. Euskaltzaleon auzotik, auzolanetik eta ekimenetik, euskararen herria eraikitzen jarraituko dugu.

KAZETARIA BEHAR DUGU

AMETZA KULTUR ELKARTEAK KAZETARI BAT KONTRATATU NAHI DU, EKOIZPEN-GORABEHERENGATIKO BEHIN-BEHINEKO KONTRATUAREKIN.

LAN BALDINTZAK:
EGUN ERDIZ LANEAN ARITZEKO.
LANTOKIA: JAUNTSARATSEN
ORDUTEGIA: ADOSTU BEHARRA.
SOLDATA: KONBENIOAREN ARABERA.
BALORATUKO DENA:
-ESKUALDEAN BIZI EDO EZAGUTZEA.
-KAZETARITZA IKASKETAK EDO/

ETA ESPERIENTZIA IZATEA.
-EUSKARA MAILA ETA EUSKALKIEN EZAGUTZA.
-IRRATI ETA MUSIKA TRESNEN ERABILERAN IKASKETAK ETA ESPERIENTZIA.
-MAKETAZIO LANETAN IKASKETAK ETA ESPERIENTZIA.
-CURRICULUMAK AURKEZTEKO EPEA ABENDUAREN 31AN BUKATUKO DA.

-HELBIDE HONETARA IGORRI BEHARKO DIRA:
ametzake@gmail.com


SILBESTRE DEUNA XXII. HERRI LASTERKETA

MAILAK ETA ORDUTEGIAK:
KATEGORIA ETA ORDUTEGIAK:
6-7 URTE 17H30. 400MTO.
8-9 URTE 17H35. 600MTO.
10-11 URTE 17H40. 800MTO.
12-15 URTE. 18H. 1,5KM.
HELDUAK: 2 AUKERA
A) LIZASO-LIZASO: 8 KM.
B) IRAIZOTZ-LIZASO: 4 KM. BERRIA
IZENA EMAN ETA ZENBAKIA HARTU: LIZASO
ZUZENA BAT OPARI PARTE HARTZAILEENDAKO

MENDIKIDEAK 2014-2015



ETA HILABETE HONETAN...



Diruaren sexu ezkutua

Emakumeek ekonomian izandako tokiaren adierazle, diru-zorroen erakusketa egin da Gipuzkoako Haurralde fundazioak. Memoria historikoa berreskuratu nahi izan du tokian tokiko ekonomian emakumeek izan duten tokiari erreparatu. Haurralde fundazioko Agurtzaneren arabera, "diruaren sexu ezkutuari erreparatu diogu, eta emakumeek izan duten rola berreskuratu. Diru-zorroen bilketa egin genuen, eta sinbolo gisa erabili". Bildutako diru-zorroekin erakusketa bat osatu dute, Larraintzarko Gizarte Etxean aste hauetan ikusten ahal duguna. Diru-zorroak, finean, "emakumeak diruaren gordailu izan direnaren eta direnaren sinboloa dira".

SILVIA CARRIZO ETA AGURTZANE MONTEANO

HAURRALDE FUNDAZIOKO KIDEAK

Nola bururatu zitzaizuen proiektu hau?

Erakusketa eta geroago etorri den dokumentala "Mujeres forjadoras" deitutako proiektuaren barruan dago; emakumeon eta ekonomiaren arteko erlazioa aztertzen duen proiektua da. Diru-zorroen erakusketak 50 diru zorro baino gehiago dituen erakusketa da, oso anitza. Euskal Herriko emakumez gain, munduko herrialde ezberdinetatik jaso ditugu: Mexiko, Guatemala, eta Argentinak, adibidez. Boluntarioek bidali zituzten.

Sinbologia handikoak direla diozue, zer dela eta?

Diru-zorroek emakumeen diruaren erabilera sinbolizatzen dute. Oso interesgarria iruditu zitzaigun, batez ere gizartearen garapenari egin dioten ekarpenarekin erlazionatua dagoelako. Guk beti buruan ditugu gure ama edo amonaren diru zorroak. Historiak ezkutupean utzi duen guzti hori atera izan nahi dugu, emakumeok ekonomiari egin diogun ekarpena aztertuz.

Gaur egun aldatu al da egoera ekonomiari begira?

Aldatu egin bada ere, ez da galdu ohitura hori. Lan mundura sartu egin gara, etxetik ateratzen gara, argi dago diruarekiko erlazioa aldatu dela; halere sinbolikoki oraindik mantentzen da etxeko ekonomiaren kudeaketa hori.

Esan duzu 50 diru-zorro inguru daudela, zeinen bitxia!

Bai, orain 60 inguru daude. Zenbait oso bitxiak dira, oso desberdinak dira lehenagoko edo gaur egungoak alderatuz gero edo munduko beste leku batzuetakoak ikustean kultura desberdinak antzematen ahal dira. Hori guztiarekin osatzen dugu erakusketa.



"Larre motzean" dokumentala

Proiektu honetarako diru-zorroak biltzeaz gain, elkarrizketak egin dizkiete landa eremuan ari diren edo aritu diren euskal emakumei. Elkarrizketa horiekin dokumentala osatu zuten.

Euskal Herriko garapenean lagundu duten emakume ezezagunen istorioak biltzen dituen Larre Motzean dokumentala izan genuen Larraintzaren ikusgai. Dokumentalak baserrietako bizitza ezagutzera gonbidatzen gaitu, egunsentitik iluntze arte lanean, eta ametsek denbora gutxi dute amestua izateko, eta bizitza, erditze, uzta, bizitza eta heriotzen artean igarotzen da. Emakumeen eskutik burututako, aurkeztutako, grabatutako eta ekoiztutako dokumentala da. 15 emakume desberdinekin hitz egin bazen ere, 4 baserriren bizitzan kokatzen da lan hau. Bizipenak eta nola izan den komunikazio eta bizipenen transmisioan.

Mikaela eta diru zorroak



Umoretsu eta alai jaso gaitu Ilarregiko Martinenean Mikaela Urtasunek. Bere 82 urteak primeran daramatza, eta gure galderak erantzuteaz gain, azpimarratu nahi izan du Esan Erran irratia entzutea gustuko duela, eta baita Zozketa Mundialerako txartel mordoa erosi dutela bere familian.

Gogoratzen al duzu diru-zorroa erabili zenuen lehenengo aldia?

Ez dut gogoratzen. Ez nuen erabiltzen.

Eguzkia joaten zenean lotara...

Horgatik izaten zituzten hainbertze ume! Ze in behar zuten.... Gaua luzea... lotara, eta behin lotara sartuz gero... (kar-kar)

Egia da...

Ai ama... gauzak kanbiatu dire asko, igual sobreska...

Bentara joaten zinetenean gauzak erostera, diruarekin ordaintzen al zenuen?

Aunitz aldiz apuntatu, bertze aunitz aldiz, igoyal trukea egiten genuen, arroza hartu eta beste gauzaren bat eman, adibidez.

Apuntatzen zenuenean, geroago zein joaten zen ordaintzera, aita ala ama?

Aita joaten zen gehienetan, ama noizbehinka ere, baina normalean aita.

Dirua fisikoa aitzak zuen orduan?

Poltsikoan dirua zuena aita zen. Halere ez zioten asko pisatzen poltsikoek garai horietan (kar-kar) Gero "racionamiento" ematen zuten Auzan. Han ematen ziguten azukre eta atxikoria eta... miseriak. Ez naiz oroitzen gosea pasatzeaz. Aita kontrabandista zen. 100 kiloko irina paketekin zebilen. Irina ekartzen zuen hemen saltzeko; herrian, bordetan... seguru ez badakit ere, dirutan ordaintzen zioten hori. Gogoratzen dudana da norbait etortzen zenean beste alde batera bidaltzen zigutela, sua pizterra adibidez.

Baina orain baduzu...

Bai, orain "sobrante" (kar-kar)

Etxetik ateratzen al zineten diruarekin poltsikoan?

Ke ba! Herriko lagunekin beti karreterara paseora, baina poltsikoan dirurik ez. Oroitzen naiz aunitz aldiz aitaxok eta amatxok zelakoak pasatu zituzten; ez urik ez argirik, bederatzi ume... Suarben bizi ziren borda batean, herrian baliteke argia egotea baina gure bordan ez zegoen.

Baina jendea aurrera ateratzen zen...

Igoal orain baino zoriontsuago baginen. Igoal. Ni orain zorionsua naiz nire ume eta nietoakin, baina orduen ere.

Begira, telebistarik ez...

Telebista? "Se acabó la vista"

Pulunpe aldirik gontzatzen zaitugu momentu bakar batez begiak itxi eta zure familiako emakumeen diru zorroen inguruan pentsatzera.

Abian! Mintzabide egitasmoa abian jarri nahi dugu



BALDINTZA: euskaraz solas egitea. Ordu horretan zer egin, taldeak berak erabakiko du: paseatu, kafetxo bat hartu, kirolean aritu, garagardo bat edan, kantatu ... betiere, mingainari eraginez!

HELBURUA: euskaraz solas egitea ohitura bihurtzea, euskarari presentzia ematea herrian, ostatuan, kiroldegian, mendian ..., gure seme alabei euskara erabiltzearen beharra transmititzea maitekiro.

Euskaraz arazorik gabe solas egiten duzun horri: parteka ezazu daukazun zorte hori solas egiteko irrikan dauden horiekin.

Euskara erabiltzeko ohitura falta duzun horri: egin ezazu errealitatea behin amestu zenuen hori, alegia, euskaraz solas egitea libreki.

Animatzen bazara fitxa bat bete beharko duzu jakin dezagun zein den zure egun eta ordutegi egoiena. Behin fitxa beteta utz dezakezu edo eman diezaiokezu:

ANUEN. Udalean bertan.
ATETZ. Irelarre elkarteko kide bati.
BASABURUA. Udalean bertan edo Apeztegi berrian.
IMOTZ. Udalean bertan edo euskara zinegotziari.
LANTZ. Alkateari.
ODIETA. Udalean bertan edo euskara zinegotziari.
ULTZAMA. Euskara Zerbitzuan.
 Edota telefonoz deitu Euskara Zerbitzura, 948 305134, edo koordinatzaileari, 688 648 352 (Aran-txa), haren bila joateko.

GURE ESKU DAGO EUSKARAREN BIZIRAUPENERAKO BALDINTZAK SORTZEA.

KONPROMISOA: astean behin gutxienez ordubetez elkartzea.

TRAFIKOA, N-121-A ERREPIDEA

Gobernuak abiadura eta aurreratzeak mugatzea ikertzen ari da



1.300 auto baino gehiagok jaso dute isuna azken asteetan

Errepidearen segurtasuna hobetzea da helburua. Nafarroako Gobernuak eta Foruzaingoa zenbait neurri ikertzen ari dira N-121-A errepidean ezartzeko. Iruñea eta Behobia lotzen dituen errepide honetan istripu ugari izan dira azken urteetan, aurtun 7 pertsona hil dira ibilbide honetan. Batetik, kamioien aurreratze eremuak eta, bestetik, autoek hartzen duten gehiegizko abiadura mugatu nahi dituzte.



Bioenergia planta, "bahitua"

Ultzamako Udalak bere gain hartu du Iraizozko enpresaren kudeaketa

Bioenergia plantak martxan jarraitzen du. Udala da orain enpresaren kudeatzailea, Konkurtso-Administratzaileak berehalako itxiera erabaki ondoren, Ultzamako udalak bere gain hartu du enpresa honen kudeaketa. Azken asteetan hainbat informazio ezberdin entzun badira ere, alkatetzatik adierazi dute orain "itxuiten" ari direla, Udalaren helburua "kudeaketa sostengarria eta etortzen den hurrengoarendako erakargarria"

egitea dela, "diru galerarik" sortu gabe. Udalarendako "garrantzitsua" dela diote eta akordioa bilatu nahi dutela alde guztiekin; "irtenbide bat bilatzen ari gara". Iruñerriko Mankomunitateak plantaren kudeaketa hartuko duen edo ez galdetuta erabaki tekniko dela dio Tornaria alkateak; "abeltzaintzarekin bateragarria izan beharko den sistema beharko du izan; purinak eta hondakin organikoak bateratuko dituen".



Aizkolari txapelketa

Azaroaren 14an Doneztebe-ko feriak izaten direla eta urtero ikuskizunen bat jartzen dute. Aurtun, Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketa bertan jarri zuten. Aizkolariak ikustera jende asko bildu zen, pilota lekua ia bete baitzen.

Denetara sei aizkolari izan ziren eta horien artean Aitor Senosiain.

Denen gainetik nabarmen Iker Vicente, hamazazpi urte besterik ez baina erraz irabazi zuen. Zaletasunari eusten badio eta hala dirudi izanen dela, aizkolari handia izanen da, okerrik ez bada, jakina. Odoletik dator, aita Otsagabiako aizkolaria eta ama, berriz, Leitzako Saralegitarren familiakoa.

Bigarren lekurako zein baino zein Mikel Mindegia eta Aitor Senosiain. Azkenean, Mindegia nagusitu zitzaion Olagueko aizkolariari. Enbor batean okerra atera zitzaion Senosiaini, eta sari handia gabe gelditu zen, lehen biak datorren urtean Nafarroako lehen mailarako sailkatzen baitziren. Beste batean beharko du, Aitor.

BERUETEKO BERRI

Urarekin gaizki

Amabiko auzoan urrez eskas ibili dira. Hori da gertatu dena, gero eta ur gutxiago eta zer gertatzen jakin ez. Azkenean harrapatu dute aberia. Ura dakarren tuberia (hodia) kaltzinaz betea zegoela, ibilbideko parte batzuetan bederenik. Orain bertan Etxaizen hari dira eta tuboak galtzinaz beteak aurkitu dituzte.

Lapurren bisita



Berri ez hain onaren ondoren, hurrengo okerragokoa da. Azaroaren 18tik 19rako

gauean, lapurrak ibili dira herrian. Iruñean bizi den herriko seme batek berriki egin duen etxe batean sartu ziren eta hainbat gauza eraman omen zuten bertatik, telebista eta horrelako. Ondoren, Herrikoetxean sartzen ahalegindu ziren. Ardangelako leihotik sartzeko asmoz, auto-katu batekin burdin hesia hausten ahalegindu ziren. Nonbait, patxada ederrean ari ziren, ustez tabernariak etxetik kanpo zirela, baina

ez hala izan. Goizaldeko hiru eta erdietan edo, lanean ari zirela, Luis lotan eta behegian soinua. Zer gertatzen ote zen argiak ixiki eta jaiki da eta deus ez ikustean goatzera itzuli zen.

Biharamunean ikusi zuen lapurren eginahala. Hala ere ez ziren horretan gelditu besteen ondasunen atzetik zebiltzan hauek, Arotzeneko ataritik Mitsubishi handi bat ebatsi baitzuten.

Ziza denboraldi arraroa

Basaburuko pintxo lehiaketak eta Ultzamako Onddoaren Egunak itxiera eman zioten ezohiko sasoiari

Gaztelerak euskarak baino hiztun gehiago ditu, askoz gehiago. Horregatik normala da zenbait esaera azkarrago eboluzionatzea hizkuntza horretan. "Verano" hitza, kasu honetan, primeran azaltzen du eguraldiarekin azken hilabeteetan gertatu dena. Uda hezea eta udazken lehorra. Planeta osoan eragina duen aldaketa klimatikoaren ondorioa

Eguraldi horrek ziza eta onddoetan eragina izan du; udan ziza asko aterra dira eta udazkenean normala baino gutxiago. Laura Gurbindo adituak irratian esan zigun oraindik ere badagoela aukera onddoren bat hartzeko: "zuhaitzek hostoak mantentzen dituzten bitartean lurra hotzetik babesten da". Hostoek lurraren tenperatura mantentzen dute. Jakina da izozten hasten denean hurrengorako itxoin beharra dagoela. Uda hezea izateak ezusteko positiboren bat ekarri du; Garrapo elkarteok udako turismoaren positiboa izan dela diote: "kanpoko jendea txorutzen zegoen hainbeste onddo ikusiaz". Azkeneko udatan turismoaren igoera sumatu da zonaldean: "Balentzia eta Katalunia aldeko jendea asko etortzen da zizak hartzera".

Onddoaren Eguna

Azaroan 23an Larrainzarren ospatu zen laugarren aldiz Onddoaren Eguna. Asteburu osoa hartu zuen ekimen honek. Larunbatean txango gidatuak antolatuta zizuten "Micoselvicultura" kontzeptuaren ha-

rian. Garrapotik azaldu zigitenez, onddo gehiago ateratzea basoen kudeatzean datza. Onddo beltza zuhaitzekin sinbiosian bizi da.

Zenbait pintzelada: zuhaitzek 50 urte baino gehiago izan behar dute onddoak ateratzeko. Orokorrean, onddorik gabe ez dago zuhaitzik eta zuhaitzik gabe ez dago onddorik. Duela hiru bat urte argitaratu zuten liburu honi buruz hurrengo Pulunperen batean hitz egingo dugu.

Sasoia bukatutzat eman badute ere, onddoek ateratzen jarraitzen badute, Alkoizko bulegoa asteburuetan irekitzen jarraituko dute. Halere, beraien webgunean informazioa eguneratua izango dute. Denetarik izan zuten Igande horretan, beti bezala, onddo eta zizen erakusketa antolatu zuten; aurten berezia izan zen, mikologo batek mikrofono bat eskuan zizei buruz hitz egin baitzuen.

Ogi-mamiak saldu zituzten edari batekin batera. Sukaldari batek ziza eta trufa errezeta desberdinak prestatu zituen jendearen begiradapean. Asteburuan pintxo be-



Igoako ostatuak saria eskuan

reziak eskaintzen zituzten Ultzamako tabernek.

Ekimen desberdinak

Goiz osoan ziza merka-



Onddo "Micuit" a, barazki krema eta gaztaina purearekin eta urdaiazpiko zatitxo hornitua.

tua egin zuten. Nafarroako zenbait proiektu ezagutarazi zuten, hala nola, Metautengo trufa museoa, Mikobaldorba, Arrotxapeako Gobeies denda...basoko zizak, kremak eta holakoak saltzen dituzte.

Ecosetas enpresa egon zen bertan; kafearen hondarretan zizak hazten dituzte. Berez zakua saltzen dizute, bertan onddoa "sartua" dagoena eta etxean zizak ateratzen zaizkizu. Atarrabiako Gurelan enpresak estatu mailan ezagunak dira "mizelioa" saltzen dituzte, eta Balentziatik, berriz, zizen produktu ekologikoak.

Basaburuko Pintxo Txapelketa

Basaburuan jardunaldi mikologikoen barruan, aurten ziza pintxo txapelketa egin zen. Partaideak autobusez joan ziren ostaturatu. Sei tabernak parte hartu zuten. Berueteko ostatuak, Ibarneko bordak, Apeztegierrrik, Aizarozko ostatuak, Udabeko bentak eta Igoako ostatuak. Azken honek irabazi zuen honako

Gartzorongo pilota txapelketa bukatu da

Elkarrizketa laburra antolatzaileei eta finalen kronika



Zer balorazio egiten duzue txapelketaz?

Balorazio nahiko ona egiten dugu, iaz baino 16 bikote gehiago eman zuten izena, 192 partida jokatu dira, finaletan frontoia leporaino bete zen... Bestalde, akatsak betikoak dira; 20 partida geratu ziren jokatu gabe, jendea ez da joaten partidak ikustera (igoarrak izan ezik). Horretaz gai, eguraldia lagun izan genuen, eta bizpahiru izan genuen toldoa.

Zer nolako maila egon da?

Alebinetan, infantiletan eta kadeteetan, maila oso altua. Euskal herriko pilotari onenak jokatu dute, eta errioxarrak ere izan dira. Gero jubeniletan maila jaisten da pixka bat; batzuek helduetan

jokatu dutelako (Laso, Bakaikoa, Sarasa eta Medina) eta helduen kategoriarri begiratuta, maila ona izan da, baina lesioak direla medio bikote batzuk jokatu gabe gelditu ziren.

Zaila egin zaizue hainbeste bikoterekin partidak antolatzea?

Bai, oso zaila da, baina arazoa ez da kopurua bakarrik; udan herrietako festak daude, oporrak, lesioak... Irailetik aurrera txapelketa ofizialak hasten dira, Nafarroakoak, Gipuzkoakoak eta Bizkaian ere egiten dituzte... horretaz gain hoberenek leku guztietan jolasten dute eta nahikoa lan ematen dute partidak ipintzeko.

Azpimarratuko al zenuke pilotari batzuen

maila?

Bai, alebinetan Igoa (Zizur), eta Altuna eta Unanue gipuzkoarrak. Infantiletan Egiguren (Azpeitia) eta Minguez (Naxerakoa), kadeteetan Aizpuru, Zubizarreta eta Salaberria. Jubeniletan, Salegi Zestoarra, eta helduetan Laso. Txapelketa osoan ikusitakoari buruz hitz egiten ari naiz. Gustatuko litzaidake aipatzea Sarasa (Uharteko atzelaria eta txapelduna) eskualdekoa dena, Eltzaburukoa.

Beste zer edo zer esateko?

Eskertu nahiko nuke aldi-zkariaren lana eta txapelketa honi egin dion ekarpena, besterik ez.

Finalen kronika

Finalen laburpena: eguraldi fresko baina ona,

eta fronoia lepo Gartzorongo Toki Alai elkarteak antolatutako XXX. Esku Pilotako Txapelketako finaletan.

Lehen partidaren Ardoi-ko atzelari Igoa nagusitu zen, markagailua 10 tantoko errenta hartu zuten, eta aurkariak erreakzionatzen hasterako partida bukatua zen, 18 eta 9 emaitzarekin. Onena Igoa izan zen.

Infantiletan, partida luzeagoa eta lehiatuagoa izan zen, eta lau pilotarien artean Murua arrasatearra izan zen onena.

Kadeteetan partida azkarrak izan zen Billabonako atzelariari esker; izan ere, Aizpuruk bere pilotakada indartsuekin Berriozarko Mariezkurrena atzelaria menderatu zuen; bentaja hori aprobetxatuz, Zubizarreta aurrelariak tantoak bukatu eta Goizuetako Salaberriari ez zion aukerarik eman.

Jubeniletan ere gipuzkoarren arteko lehia, eta beste partida luze eta gogorra, non Zestoako Salegi atzelarian abarmendu zen.

Eta senior mailan, Iruñeko aurrelari Laso gaztearen erakustaldia; bere indar eta erremateekin lur jota utzi zuen Gipuzkoako bikoa; aitaren batean bukatu zen partidaren emaitza ikusi besterik ez dago, 22 eta 6,

Azkenean, txapelketa giro onean despeditzeko sari banaketa eta luntxa egin zen.

ODIETAKO BERRI

San Urbanoko eliza udalaren eskuetara pasako da



Latasako herria

Sanurban laster pasako da Udalaren eskuetara. Nafarroako Artzapezpikutzak udalaren aldeko donazioa egitea erabaki zuen aspaldi samar eta honek onartu ekainaren 12an izan plenoan. Donazio edo dohaintza Notarioaren aurrean pasatu behar zen baina baldintzak aldatzea eskatu zuen Nafarroako Artzapezpikutzak eta horrela gauzak atzeratu dira.

Bi aldeak adostu duten baldintza zera da, eliza bera ez dela erabiliko inola ere erlijioaren kontra. Kasu balitz, atzera itzuli beharko luke Udalak.

Orain, behin-betiko onartu ondoren, laster sinatuko da Notarioaren aurrean.

Eta aurten pentsatutako konpontze lanak datorren urtera arte atzeratzea erabaki da. Lan hauek, batez ere, teilatua berritzea da.

Nolanahi gisa, zimenduen zatitxoren batean okerren bat ote den eta azterketa geotekniko bat eginen da.

Katastroko balore berriak

Datorren urtean indarrean sartuko dira balore katastral berriak. Katastroko baloreak arautzen zituen txostena 2003an onartu zen. Geroztik hamar urte baino gehiago pasa dira eta, gainera, 2013. urtean onartu zen Udal Plana. Honen eraginez, hainbat lurren kalifikazioa aldatu zen, landa-lur izatetik hiri-lur izatera pasatuz batzuk eta baita alderantziz ere.

Hau horrela, aurten Katastro baloreak aldatzea nahi eta nahiezkoa bihurtu zen eta hala egin da.

Jende aurrean egon denean, ibarreko lur-jabe gehienak ez onartzearen aldeko idatzia aurkeztu dute udal-etxean sinetsirik zenbait lurrek 2, 3, 4 aldiz goratu direla. Hau ez zela horrela erakusteko udalak txosten bat egin du eta horren ariora, argi gelditu denez, hiri-lurrak %44an igo dira eta landa-lurrak %38an.

Gainera udalaren asmoa ez da kontribuzioak goratzea eta balore hauei ezarriko zaien tipoa orain artekoaren azpitik izanen da. Adibidez, hiri-lurren balioaren %0,255etik %0,19ra pasako da.

Aldaketak, aldeketak, udalak jasoko duen kontribuzioa, orokorrean hartua, iazkoaren antzekoa izanen da.

Gaizki ulertuak behar bezala argitzeko, zergapeko edo kontribuyente bakoitzari ondasunez ondasun, taula baten bidez, ezagutzera eman zaio zertan zeuden baloratuak eta orain zertan dauden; eta lehen pagatzen zuena eta orain pagatu beharko duena.

Lan hau dena egitea nahiko neketsua izan da udalarentzat, baina, eskerrak jendea konforme gelditu den. Ez da gutxi.

Errigora ekimena, euskaldunon elkartasunaren adibide



Horrela sortzen dira gauzak batzuetan. Errigora herri ekimenari Bizkaiko koardila batek eman zion hasiera duela hiru bat urte. Zainuriak eta holakoak

dendara eroatera joan eta Txina eta Ameriketatik zetozele ikusten zuten. Nafar Hegoaldean holako lur sailak egonda harrিতa geratu ziren. Erribera aldera txangoa antolatu eta bertan aurkitu zituzten modu ekologikoan lanean zeuden ekoizleak. Hauek arazo handiak zituzten lehiakortasuna dela eta. Nafarroako "label" horretan gezur handia zegoela ikusi zuten. Beste alde batetik, zonal-

de horretan euskaraz bizi nahi duen jendea egonik, bi alorrek batu eta elkartasunean eta barazkietan oinarritutako ekimena sortu zen.

Azaroaren erdialdean bukatu zen saskiak eskatzeko epea, eta aurten "oso pozik" agertu dira antolatzaileak izandako erantzunagatik, batez ere enpresa, eskola eta udal-letan izandako erantzunagatik: "iaz ondo joan bazen, aurten hobe joan

da, enpresa askok egu-berritako saskirako erosi dutelako". Auzolan handia egin zuten Tuteran saskiak prestatzeko eta "ilusio handia" piztu zela diote. "Zubi lan horretaz gain, erlazio pertsonalak sustatzea ikaragarria" izan dela diote. Bukatzeko azpimarratu nahi izan dute holako ekimenak antolatuz beste behin ere agerian gelditu dela "gure funtzionatzeko modua "auzolanekoa" dela.

Ailegatu da ametza.eus

Euskararen Nazioarteko Egunarekin batera, abenduaren 3tik aurrera, www.ametza.eus izan da gure webgunearen helbide berria

Interneteko domeinua aldatuko du Pulunpek asteazkenean. .EUS domeinua hartuko dugu guretzat. Horrela, Ametza Elkarte (Pulunpe eta Esan Erran irratia kudeatzen duen kultur elkarte) Interneteko euskararen eta euskal kulturaren komunitatearen parte bihurtuko da. .EUS domeinua

horretarako sortu baita, Interneteko euskararen komunitatea kohesionatzeko. Hizkuntzaren normalizazioan lagunduko du domeinuak. Aldi berean, Interneten euskara beste hizkuntzen mailan kokatuko du domeinu berriak, euskararen herriari nazioarteko aitortza eskainiz. Horregatik, .EUS.



Irudi batean

Elkartasun Eguna 2014



Ingurugiroaren errespetuan beste pauso bat aurrera

“Belate” ingurua, Babes Eremu Berezia izendatu dute landaredia eta fauna zaintzeko asmoz

Modu integralean. Ingurugiroa gizartearen jarduerekin erlazioa duela onartzean, babes eskaintzerako orduan aspektu desberdinak hartu behar dira kontuan; landaredia eta animaliez gain zonaldeko kultura zainduko dela diote Belate deitutako eremu honetan. Baina zein bailara hartzen du honek? Anue, Basaburua, Baztan, Bertizarana, Donamaria, Eratsun, Esteribar, Ezkurra, Beintza-Labaien, Lantz, Oiz, Saldias, Ultzama eta Urrotz dira. Nafarroako Gobernuak azaroaren 5ean onartutako Foru Dekretu baten bitartez Belate ingurua Kontserbazio Eremu Berezi izendatu zuen. Horretaz gain kudeaketa plana ere onartu dute, nahiz eta oraindik publikoa egin ez.



Planaren helburu nagusiei dagokienez, pagadi eta hariztien hedadura handitu nahi dute, baina gaur egungo gaztainadi zaharrak mantentzea ere. Erreka eta erreka bazterren ingurumen kalitatea ere hobetu nahi da, landaredi arrotza murriztuz. Hezeguneei dagokienez, zohikaztegiak, putzuak eta urtegien kontserbazio egoera hobetzeko asmoa dute.

Faunari dagokionean, bertako karramarroen kolonizazioa bultzatuko da horretarako egokiak diren

eremuetan, eta mehatxupean dauden intsektu espezieak biltzen dituzten eremuak identifikatuko dira. Okil gibelnabar eta okil beltzarentzat ere kontserbazio neurriak hartu nahi dituzte, eta, saguzarren kasuan, umatzen eta elikatzen diren eremuen baldintzak hobetzeko asmoa dute.

Hemendik aurrera gure eskualdeko zati handi bat babes bereziko zonaldea izango denez, suposatzen da, besteak beste, diru-laguntza zehatzak egongo direla. Ikus dezagun gaur egungo kasu bat:

Gobernuari laguntza eskatu dute liztor asiarraren aurka



Opzioan dauden alderdiek proposamena aurrera ateratu zuten UPNren ezetzarekin. Laburbilduz, liztor asiarraren aurkako

borrokaren gastuak gobernuak ordaintzea zen, “arazo global honen aurrean erantzun global bat” eman behar delako, ez orain arte bezala “Tokian tokiko udalak ordaindutako ekimen isolatuak” bezala. Alderdi politiko hauen esanetan, intsektu honen presentzia modu “esponentzialean” hazi da azken urteetan, eta gobernuari gogoratu zioten nola 2013ko otsailean, talde guztien oniritziarekin, protokolo bat osatzeko proposamena onartu zen.

Egin gabeko protokoloa. Ikusiko dugu ZEC deitutako kudeaketa plan hori aurkezten denean gauza hauek aldatzen diren.

Basaburua, Euskararen arnasgunea

Kultura ere kontuan hartzen du Z.E.C zonalde honek. Bertako kultura eta ohiturak zaintzea da proiektuaren adarretako bat. Euskara da gure kulturaren oinarrietako bat. Ikastaroa antolatu zuten Basaburuan, bailara hau euskararendako arnasgunea delako. UEMAKo Goizane teknikariarekin hitz egin dugu:

Zergatik da honi buruzko ikastaro bat?

Azkeneko 30 urteetan zonalde askotan gertatzen ari dena da eremu erdaldunak euskalduntzen ari direla, baina baita eremu euskaldunak erdalduntzen ari direla ere. Beheranzko joera gertatzen ari dira herri askotan. Joera hori gelditu eta arnasguneetatik abiatuta horietan eragitea nahi dugu.

Ze faktore daude aldaketa horretan?

Migrazio mugimenduak izan dira (bertan batez ere erdaldunak mugitu dira) eta, bestetik, etxebizitza politika dago. Duela hamarkada batzuk gertatzen

zena aldatu da orain; lehen herri handi eta hirieta- ra joaten zen jendea, azken urtetan herri txikietan etxebizitza eraiki da. Hirietan prezioak garestitu eta herrietan jaitsi denez, jende asko hiriguneetatik herrietara mugitu da.

Holako prozesuak gurean ere gertatu dira, ze proposatzen du UEMAK horri buruz?

Beste zenbait eragilerekin ari gara elkarlanean laster aurkeztuko den tresna batean. Tresna horrek balioko du edozein garapen proiekturen hizkuntza-eragina neurtzeko, hizkuntzan eragin txarra badu, nolabait ekiditeko.

Egindako ikastaroan zer neurri hartzea erabaki zen?

Identifikaturiko hutsuneetatik lehenetsuneko bi gai edo sektore aukeratu ziren: haurrak eta gazteak. Hurrengan eragiten duten bi esparru landuko ditugu familiarrena eta eskolarena. Beste alde batetik, gazteen artean euskarazko harremanak sustatzeko, lagunarteko hizkera indartzea dugu helburu.

Segurtasuna basoan


Luis Foresna elkarteko teknikaria da, Nafarroako Baso Elkarte. Basaburuan egon zen “Basoan lan egiten” hitzaldia ematen. Elkarte hori udal, kontzeju eta partikularrez osatua dago. Basoaren munduan dauden alderdi guztiak betetzen saiatzen badira ere, emandako hitzaldian segurtasuna izan zen mintzagai.

Emango al dizkiguzu pare bat aholku?

Lehenik eta behin esan beharra dago urte batzuetatik hona gauzak hobeto egiten ari direla, serioago hartzen dira segurtasun neurriak. Halere, nabaritzen da segurtasun neurriak betetzeko orduan jaitziera handia egon dela krisi ekonomikoa dela eta. Jendeak ez du materiala behar bezala mantentzen. Prebentzioa alde batera utzi da, inbertsioa jaitsi da, baina neurriez gogoratzen gara bakarrik ezbeharrak datozenean. Beti kontuan izan behar den zerbait esango dut; basoan arriskuak daude. Eta horregatik azpimarratzen dugu bakarrik ez egotearen garrantzia; edozein ezbehar edo ezusteko gertatuz gero

bakarrik egongo zarelako. Oinarrizko ideia horretaz gain, badaude zenbait protokolo, material eta ekipamendu jendeak gainean eraman behar dituenak eta horiek ondo mantendu behar dituenak.

LIC zonaldea izatetik ZEC izatera pasatu da, eta kudeaketa plan bat aurkeztuko dute. Kudeaketa plana oraindik argitaratu ez bada ere, edozein egunetan atera daiteke, “albistea ona izan beharko luke”, dio Luisek. Kudeaketa plan horretan “guztia zehatz-mehatz agertu beharko da, LIC izatean zenbait ildo orokor agertzen dira, baina orain ze neurri hartzen diren esan behar. Printzipioz plan honen atzean inbertsioak etorri beharko lirake. Diruaren kontuari buruz, zonaldeko basozain bati galdetuta, “dirua sartzeko oso zaila” dela esan digu, “proiektua papera besterik ez da”. Kudeaketa eta epeei begiratua, kontuan hartu behar da plan honek 10 urteko bizi duela. “Suposatzen da basoendako diru-laguntza batzuk daudela. ZEC zonaldeek beste zonaldeak baino puntuazio altuagoa dute konkurtsoetan. Orokorrean, aurretik baino %10eko igoera ekarriko luke diru-laguntzetan”.



Beramendiko lasterkari famatua

Basaburuko lasterkariez hitz egiterakoan, lehen-lehenik aipatu beharrekoa, Beramendiko Gregorio Aldanondo Barberia genuke. Beharbada, lasterketa famatuena egin duena. Eta guk dakigun lasterketa zaharrena. Hau, igandez, 1916ko ekainaren 25ean izan zen, beraz, aspaldi xamarrekoa da. Ehun urte egiteko gutxi falta.



Hor dugu Gregorio ezkontzerako ateratako fotografian bere emazte Kattaliñekin.

Bere egunean, *Diario de Navarran* eman zuten lasterketa honen berri. Eta orain urte batzuk bere seme Perikok zenbait xehetasun kontatu zigun. Udaben ere, oraindik ahoz jasotako oroitzapen batzuk gordetzen dira, ez gehiegi. Garai hartako laster apustu famatuak bezala, hau ere luzea izan zen, 20,5 kilometro izan baitzituen. Lana, Jauntsarastik atera, Irurtzuna iritsi eta buelta, Beramendiko herri sarreran jarri zutelarik helmuga. Lasterkariak, honako hauek ziren: Gregorio Aldanondo Barberia, oraindik 21 urte bete gabea, Beramendiko *Bengoetxeko* semea eta ibilkari handia.

Bestea, berriz, Felix Igaralde, hemen karreterak eta txukuntzen zituena, "kamine-roa" alegia. Mutil hau, berez, Peraltakoa zena, Ihabengo bentan zegoen apopilo. Hemengo nagusia Teodoro Olias "Gazolaz" oso apustu zalea zen eta benta honetan sortu zen apustu hau, bentaria tarteko ibili zelarik.

Bezperan euria egin zuen eta Basaburuko errepidea lurrezkoa zenez, dena lokaztua aurkitu zuten gure bi protagonistek; ez zien on handirik eginen lasterkariei.

Apustua jokatu zen egunean, Gregoriori plater bat baba eman zioten gosaltzeko, bizkor egon zedin. Nonbait baba bezalako janaririk ez zegoen kirolari batentzat! Eta, jakina, gero, lasterketakoan, babak estomagoan dantzan eta indarrak alde egin. Erriberakoaren atzetik, nahiko lan Gregoriorik.

Irurtzunen buelta hartu eta botaka aritu omen zen, denak bota arte, kontrarioa aurrera eta aurea, bistatik galdu zuen arte. Gorputza arindurik, eta hetsi hartu ez zuenez, pixkaka indartu eta atzetik segika, *Kaxernako* kaxkotik ikusi zuen Igaralde eta orduan animatu zen gure Gregorio. Eta nola gainera, Urritzako bentan harrapatu, eta ezkerretik pasatu zion. Gero aldapan gora bentaja puxka kendu eta aurretik sartu zen helmugan. Eta iritsi, soka saltatu brist, eta etxera; aldatu eta Urritzara pestetara joan omen zen.

Egunkarian jartzen duen kontu bat zera da, Udabeko maldan norbaitek makila bat eman ziola Gregoriori eta hori bentaja izan zezakeela. Esan beharra dago, denbora hartan makila motx bat ibiltzen zutela hemengo lasterkariek, eskuetan eramateko baina inola ere ez lurrean jotzeko; beraz, horrelako makila batek deus gutxi laguntzen ahal zion eta ezta luzeago batek ere.

Jokatzen zutenaren berri ez dit inork eman ahal izan, baina uste izatekoa da diru puxka jokatu zutela. Askok edo gutxi jokatu, ikusmin handia sortu zuen ikus-



Periko, zaharrenaren hurrengo semea (Zaharrena 20 urtetan hil zen)

teko honek eta herri hauetatik denetatik jende asko bildu zen errepide bazterretara; ez zen gutxiagorako.

Ondoren, *Gazolaz* saltseroa izanik, esan zion Gregoriori mila pezeta jokatzeko prest zeudela beste apustu baterako, hori bai, motzagoa, Beramendiko parraletik *Bengoetxeko* bordara eta itzuli.

Gregoriorik zinez hartu eta hor ibili zen herrikoekin mila pezeta nola bilduko. Aski lan hartu zuen baina bai azkenean erdietsi ere. Eta bentara apustua hartzera joan zenean, hala bota omen zuen Igaraldek:

-Pero si me ha ganado la apuesta, ¿Cómo voy a jugar en su terreno?

Gazolaz irrikan apustua egiteko, inondik ere apustua eginarazi nahi baina... ez zen apusturik egin.

Zu, irakurle, ariko zara galdezka, eta zenbatean egin zuten apustua? Ba, 82 minututan. Igaraldek 6 segundo gehiago behar izan zituen. Horrelako lasterketa baterako diferentzia ttikia. Ez da marka txarra, ez, horrelako ibilbide malkartsuan. Orain, egiten diren prestaketekin, hemengo inor ausartuko ote da marka hau hausten?

Gregoriorik zenbait zertzelada

Gregorio Aldanondo Barberia *Bengoetxean* jaio zen 1895eko otsailaren lauan. Aita sortzez Baraibarkoa zuen eta ama arruiztarra eta familia hau maistar zegoen *Bengoetxean*. Ezkondu, berriz, Catalina Goikoetxea Moreno *Laborneko* alabarekin. *Bengoetxean* jarri ziren bizitzen, gurasoekin, lehenago bezala, maistar.

Bengoetxean, etxalde ederra, taberna edukitzen zuten; bestalde, aketza ere bai, eta nekazalgora, jakina. Eta honi gehitu behar, behi bakar batzuk eta artaldeak.

Periko, bere semeak, hala esan zigun bere aitaz: "beti artzaingoan, beti artzaingoan, molde gutxi zuen nekazalgora. Ama eta seme-alabok ari behar izaten genuen lan horietan. Gainera sasi-albaiteroa zen eta, noiznahi, etxetik kanpo ibiltzen zen azienda sendatzen. Eta badakizu, behorra hartu eta hara eta hona, etxez etxe, hemen gosaldia eta han trago, bitartean, nekazalgora eta familia andrearen esku. Beti behor gainean, beti behor gainean".

Gregorio, lasterkari handia izateaz gain, gorputz bigun izugarrikoa izan zen bizi zen artean. Izaeraz,

alaia, pestazalea, eta esan dugun bezala, azienda ezagutzeko bista handikoa, artista hutsa, aldanondotarrak izan diren bezala.

Azkenean, suerte txarra izan zuen: igande batez Udabera mezara joan, oilo bat erosi eta itzultzerakoan erauntsi batek harpatu, txela-txela egin eta nahiz sutondoan bizkarrez jarri eta lehortu, hoztu egin zen eta pulmonia harpatu. Hala ere, heriotza agirian biriketako tuberkulosiaz hil zela jartzen du, eta hori izanzen zen heriotzaren arrazoi nagusia. 1940ko azaroaren 7an izan zen. Gregoriorik 44 urte besterik ez zituen eta Catalina alargun utzi zuen, bere zazpi seme-alabekin, zaharrenak 16 urterekin eta gazteenak hirurekin.

Aipatu dugun bezala, sasi-albaitari ezaguna genuen Gregorio alderdi honetan. Langintza berean ibiltzen zen Benito Gofñi Juanbeltz arrarastarraren adiskide mina.

Jabeek etxea saltzera atera, erostunak azaldu eta, hau eta bestea, azkenean errenta goratu eta asko iruditu eta utzi egin zuten *Bengoetxea* eta Beramendi. 1946. urtea zen eta Iruñera joan zen familia osoa.



Beramendiko herria eta Bengoetxea



HIZTEGITXOA

Maistar: *Maizter, batuan. Inquilino.*

Irrika, *nahi handia.*

Txela-txela. *Busti arrunt.*

Txelatu: *erabat busti euripean.*

Xabier Odriozola, maskulinitatean aditua eta gizon taldeen sortzailea:

“Eguneko 24 orduetan gizarteak ziria sar ahal dizulako adi-adi egon behar gara.”



Bidea luzea eta zaila da. Pertsona guztiendako berdintasuna eta zuzentasuna nagusi izanen den gizarte batera ailegatzeko bidean, egunez egun gero eta argiago dago oso inportantea dela gizonekin lan emazionala eta pertsonala lantzea, eta garrantzitsua ere bada horrekin batera lan intelektuala, hausnarketa, prestakuntza eta harreman soziala lantzea, eragile politiko eta sozialen parte-hartze zuzenarekin. Horren harira, Xabierekin hitz egin dugu, Aizarotzen eman zuen hitzaldiari buruz.

Zer aurkituko du jendeak zure hitzaldian?

Alde batetik, gurasoen kezka izan ohi da beren seme-alabekin ondo egiten ari diren edo ez. Argi dago hezkuntzan ez dagoela inolako esku-libururik, eta gurasoak askotan hasten dira seme-alaben hazkuntza tutik jakin gabe. Suposatzen da gurasoek badakitela gauzak ondo egiten, baina gero ikusten dugu gure seme-alabei irakasten diegunaz gain badagoela ikasteko eta irakasteko eragile asko: hedabideak, filmak, propaganda, lagunak, liburuak, aldamenen dituzten pertsona heldu edota gazteak... Horiek guztiek eragiten dute gure seme-alaben hazkuntzan, hezkuntzan eta bizitzan. Horri buruz hausnarketa txiki bat egiten dugu hitzaldietan. Gure seme-alaben hezkuntzan aukera desberdinak daudela.

Aurreko egunean lagun batzuen argazkiak ikusten ari nintzen eta “modelo” bat bezalako postura jartzen ikusi genuen bat. Ze punturaino ailegatzen da hedabide eta kanpoko faktoreen eragina?

Ikerketek diote hedabideen bidez 20.000 inguru mezu eta estimulu sexista jasotzen ditugula eguneko. Horietatik 2.000 bat, genero indarkeriari lotutakoak dira. Alde batetik, guk eraiki nahi dugun heziketa moduei itsasten zaizkie nahi gabe kulturaren edo gizartearekin batera orain arte etorri diren ohitura eta mezuak. Komenigarria izan ohi da beste aukera batzuk aztertzea eta gure seme-alabei ateak zabaltzea beste hezkuntza era batzuetara. Horrelako guneak sortzen saiatzen gara gure lanean; pertsonak beste eredu eta adibide batzuk eduki ditzaten beraiek zertan eta nola ari garen hezten egiazta dezaten, eta gero horren inguruan erabakiak har ditzaten: betikoa egin edo beste bide berri batzuk jorratu. Adi egon behar dugu eguneko 24 orduetan gizarteak ziria sartzen ahal dizulako hezkuntza prozeduran, eta agian zeu ohartu gabe zure seme-alabak jasotzen ari dira zure hezkuntzarekin kontraesanean datozen mezuak eta ereduak.

Gizonendako hitzaldiak dira bereziki. Azalduko duzu hau?

Orokorrean, jaiotzen den haragizko guztiak inposaturiko aukera biko baten aurrean topatzen du bere burua, neska edo mutila jaio delako. Neska jaio bada ohitura, aurreiritzi, funtzio, esperantza, jokabide eta rol batzuk irakasten zaizkio eta mutila bada beste batzuk. Bereizketa horretan jaio gara; oso aukeraketa murrizta da gizaki orok izaten ahal ditugun nortasun anitzekin alderatuta. Besteak menperatzea da mutiloi egokitzen zaigun rola eta emakumeei dagokien rol nagusia menpekoak izatea onartzea da. Egokitu zaizkigun rol horietatik askatzea denon ardura da, gizonetzko alde batera utzi behar ditugu dena menderatzeko eman diguten hezkuntza, eta emakumezkoek alde batera utzi beharko lituzkete beren askatasun osoa murrizten dituzten funtzioak eta rolak, beraien boterea boikotatzen dutenak... Beharrezkoa da gizonen eta emakumeen askapen mugimenduak elkarrekin joatea eta elkarlanean aritzea.

Estatistikei begiratuta, gazteetan gertatzen ari dira biolentzia matxistaren kasu gehienak. Zer iruditzen zaizu?

Burura etortzen zaidan lehenengo gauza da haiekin asmatu ez dugula. Gu izan gara belaunaldi horren lekuko, guraso, irakasle, heldu, erreferente... Tarte horretan dauden pertsona horiek gu izan gaituzte begien aurrean. Guri ere antzeko gauzak gertatu zaizkigula uste dut; gure gurasoak erreferente izan zaizkigu, onerako eta txarrerako. Belaunaldiz belaunaldi igarotzen den estruktura patriarkala, hegemonikoa eta kapitalista hierarkikoa da. Ez da erraza kate hori mozten. Halere, horretan ari dira emakumeak aspaldi feminismoaren bitartez eta gizonetzkoak ere hasi gara maskulinitatearen bitartez gauza hauei guztiei galga jartzen edo aurre egin nahian, nahikoa dela esanez, honela ez garelako urrutira helduko elkarrekin. Gazteak horretan ditugu, oraindik rol hauetan korapilatu eta nahaspiatuak, geu ere halaxe gaudelako.

A ze koadrila; Zebrabidea, Zozketa Mundiala, Programazioa eta Irratimaleta!



Hilabete mugitua irradian izan duguna azarora; irratsaioak egiteaz gain, programazioaren kartela aurkezten dugu aldizkari honetan. Etxeko hozkailu edo paretaren batean jartzea da helburua, irratsaioak noiz diren ondo jakin dezazun! Urteari agur esanen diogu Zozketa Mundiala urtero bezala irratitik emititzen; gogora ezazu, zuzenean eginen dugu saioa eta opari ederrak izanen dira deitzen dutenendako. Hori prestatu dugu urtea agurtzeko. Horretaz gain, gogorarazi nahi dizugu Irratimaletaren proiektua geroz eta hurbilago dagoela, hemendik gutxira kaleetan ikusiko dugu elkar!

Gaurkoan Nekane Zinkunegi kazetariarekin hitz egin dugu; gipuzkoar esatari honek Info7 irratiako estudioetan lan egiten badu ere, Euskal Herri osoko Arrosa sarearen “Zebrabidea” saioa aurrera ateratzen du astelehenerik ostiralera. Entzun dezagun zer esaten duen eta ez ahaztu, astelehenerik ostiralera, goizeko hamarretatik hamaiketara Egun Ero irratsaioa, Esan Erran irradian, dialaren 107.9 an!

Zebrabidea

Gasteizko Hala Bedi irradian sortu zen duela urte batzuk. Arratsaldeko saioa da eta bertan eduki anitzak aurkitzen ahal dira. Denbora pasa ahala eta Arrosa sarearen laguntzarekin, Info 7 eta Antxeta irratiak hasi ziren saio honetan edukiak gehitzen. Sare honen irratsaio erreferentziala bihurtu da eta Nekaneri egokitu zitzaion duela bi urte magazine honen gidaritzan. “Sarearen filosofia mantentzen saiatzen gara,

hamaika kolaboratzaile ditugu, ahalik eta ahots gehien sartzen saiatzen gara, kontu txiki eta handiekin”. Egunero bi orduz zuzenean emititzen badute ere, prestakuntza orduak asko dira: “Sukalde lana handia egiten da; asteroko kolaboratzaileak ere badaude, hauen gainean egon behar, telefonoan, emailean, sare sozialetan, denetan egon behar. Halere, Nekane dio “gustura” egiten duela lan “emaitza polita izan dadin”. Ahotsa ematen diete irratik desberdinei, horien artean, bi astetan behin, ultzamaldeko kontuak ekartzen dituen Iosu Martinez bertako esatariarekin egiten dute solasa. “Kolaboratzaile sare handi bati esker ateratzen da aurrera Zebrabidea. Hainbat eta hainbat pertsonak osatzen du saretxo hau, 30 bat inguru”.

Arrosa Sarea: Elkarlana irratietan

Euskal Herri mailako irratik txikiez osatutako sarea dugu Arrosa. Irratsaioaren elkartrukea du helburu, eguneroko parrilla osoa betetzea oso zaila delako. Poliki-poliki elkarlana eta elkar ezagutzea sustatuz, trinkotuz joan da sarea; teknikoki eta teknologikoki hobetuz.

Saretik sarera

Topatu.info atarian kolaboratzen du Nekane ere. Gazte Sarea.net ekimenetik sortu zen egitasmo komunikatiboa da; “komunikabide honek jasandako errepresio eta itxieraren ondoren gazte talde batek hutsune hori beti egin genuen”. Poliki-poliki baina ezaguna izatera ailegatu da, “gazteek gazteendako egindako komunikabidea dugu” eta egonkortze bidean da.

Errepresio komunikatiboa

Topatu.infok gazteetan protagonismoa jartzean “beste hedabideetan dagoen eredu aldaketan du eta halako kontu alternatiboak deserosoak dira herri honetan”. 2013. urtean Urduñan antolatutako Gazte Danbada egitasmoa; Jabier Lopez Peña presoaren espetxean hil zuten egun horietan. Hernai taldeak antolatutako ekitaldi batean oroimena aitortu zitzaion hildakoari. Topatu.infok ekitaldi honen bideoak argitaratu zituen. Ekitaldi honengatik Hernaiko bozeramaleak Auzitegi Nazionalera deitu zituzten. Topaturiko bideoak ezabatzeko agindua ailegatu zitzaion eta nahiz eta prentsa askatasunaren aurkako eraso salatu, ezabatu egin zituzten. Pasa den urriaren 7an deklaratu egon ziren Topatu.infoko 3 kazetari Madrilan.

Nafarroan euskararen egoerari begira

MIKEL BUJANDA, EUSKAL HERRIA IRRATIKO ZUZENDARIA



Mikel, lankide eta mikrofonoen erdian.

Iruñerrian 15-20 irrati ari dira egunero. Denak erdaraz bat ezik. Euskalerrria irrati dugu euskalduna. Euskalduna, bakarra, eta baimenik gabe ari da lanean. Badituzue 25 urte eta baimenik erdiesten ez. Lizentzia batzuk emateko, azken urteetan bi lehiaketa izan dira eta bietara aurkeztu zarete, baina lizentzia gabe gelditu zarete. Oker bidez ukatu dizute, ustez behintzat. Tribunaletara jo du irrati horrek eta epaiketak irabazi ditu. Hala ere, hor dabil Nafarroako Gobernua, lizentziarik ez diola emanen-eta.

Mikel, zertan dabil gure Gobernua Iruñerriko euskarazko irrati bakarraren kontra?

Ibilbide luzeko irrati da Iruñeko Euskalerrria. Geure bazter hauetako euskal jendeari komunikazio zerbitzua eskaintzeko antolatuz, Berlingo harresia oraino zutik zegoen denboretan hasi zen bere saioak zabaltzen, 1988ko udazkenean.

Eraitsi zuten Berlingo horma hura. Ez dira hala ere amaitu gure irrati honi jartzen dizkioten trabak.

Egiten dugunagatik baino gehiago ezagutzen gaitu jendeak egiten digutenagatik. Ez luke horrela izan behar: Euskalerrria Irratiak bere zerbitzua eskaintzen jarraitzen du egunegun, etenik gabe, Iruñerriko euskaldunei mintzalekua eskainiz, geure arteko harremana elikatuz, erderazko irratiak egiten duten gauza beretsua besteek ez bezala eginez, euskaraz alegia. Hori da egiten duguna.

Baina emititzeko baimenik eduki gabe aritu beharra traba handia da geure eginkizuna nahi bezala betetzeko. Murriztu egiten dizkigu ahalak, arlo teknikoan bezala ekonomikoan. Hori da egiten dugutena. Uhinetako okupak bagina bezala jardun beharra dugu, jakin ezinik ixtera etorriko ote zaizkigun edo isunen batekin zigortuko gaituzten. Segurtasun juridikoa, izateko eta aritzeko eskubideen jabe izatea da gizarte demokratikoak eskaini behar duen lehendabizikoa. Guk ukatua dugu segurtasun juridikoa, emititzeko eskubidea. UPNko Gobernuak Iruñerriko euskaldunoi komunikaziorako eskubidea ukatzen digu. Hori da errealitatea. Zergatik ote? Agintari ditugun zein helburu edo asmori egiten ote dio kalte Iruñerriko euskarazko irratiak? Pentsaka jarri gaitezen.

Euskarazko telebista Iruñerrian? Denon artean posible da!

Nafarroako Gobernuak LTD bidezko tokiko telebistentzako lizentziak banatu zituen iaz. Iruñerriko lizentzietako bat Xaloa Telebistari eman zion, 1997tik Baztan-Bertizarana-Malerrekan euskaraz hutsez diharduen euskarazko telebistari. Lizentzia lortu izana albiste ona da Xalorendako alegaltasunetik irteteko aukera aparta delako, Iruñerriarendako euskarazko telebista bat ikusi ahal izango dutelako eta, azkenik, euskal komunitatearendako ere horren bidez euskaraz beste plaza bat irabazten duelako.

Aukera aparta bada ere, ahalegin handia eskatzen du: Xalok 50.000 euroko inbertsioa egin behar du seinalea Iruñerria osoan barreiartzeko bi errepikagailu ezarri behar dituelako. Horregatik, laguntza eskatu dio euskaldun eta euskaltzaleen komunitateari, denon ekarpen txikien bidez kopuru handi horretara iristeko.

Lagunduko al duzu telebista bat euskaraz egoteko? Azkar ibili, ba, ekarpenak egiteko azken eguna abenduaren 21a da eta!!!

SAN MIGEL KOOPERATIBAREN 50. URTEURRENA (II)

JESUS AZPIROZ, GERENTE OHIA:

“Laneko zenbait alderditan puntakoak izan gara”

Aldizkariaren aurreko alean Oskotzen kokatua dagoen kooperatibak mende erdia bete zuela aurreratu genizun. Duela gutxi erretiroa hartu duenez, memorian fresko mantentzen ditu datu guztiak Jesusek. Lekunberriko bere etxe aurrean jaso gaitu.

50 urte jada, nola sortu zen kooperatiba hau?

Lehenik eta behin esan beharra dago sortu zenean nik 14 urte besterik ez nituela. Garai hartan Oskotzen zenbait esplotazio txiki zeuden. Zufaiga kooperatibaren ezagutzaz jabetu ondoren bisita egin zioten, zenbait bilera egin eta proiektuarekin aurrera egin zuten. Orokorrean egoera zaila zen: industrializazio garaiak ziren, populazioa hirietara joaten zen lanera. Aurretik bazeuden 50 bat esplotazio, baina erdian geratu ziren urte gutxitan. Martin Zarranz izan zen sustatzaileetako bat, eta apezak ere lan handia egin zuen; gai hauetan aditua ez bazen ere borondatea jarri eta aholkularitza lanak egin zituen; dokumentazioa biltzeaz ere arduratu zen, baina batez ere jendearen arteko bitartekaritza aritu zen.

Lehenengo urteak errazak izan ziren?

Ez. Hasiera batean 18 familia zeuden lanean, 34 behi, 400 ardi eta 100 hektarea zituztela. 1960 hamarkada erdiko lehen bost urteak oso geldiak izan ziren, bazirudien ez zekitelako oso ondo zer egin, zer norabide hartu. 65. urtean ikastera bidali ninduten; hasieran Leitza eta gero Valladoliden ingeniari teknikoa ikasi nuen. Soldaduska bukatu eta kooperatiba kudeatzen hasi nintzen; argi zuten etxeko jendea nahi zutela bertan lanean. Nolabait, esplotazioa modernizatzen hasi ginen; ardienezko ukulu berri handi bat eraiki zuten aurrekoa zaharkitua zegoelako eta zaila

zelako animaliekin moldatzea. Azpiegituz gain, jende berria sartu zen, semeak hasi ziren lanean.

Zein zailtasun opatu zenuten aurrerago?

Gizarteak aldatzen jarraitzen zuen; industrializazioa gero eta nabarmenagoa zen; Leitza paper-fabrika, INASA... Lan egiteko eta bizitzeko bi eredu zeuden aurrez aurre; fabrikari lan egitea errazagoa dela esan daiteke; astean lanera eta asteburuan jai. Kooperatibara itzuliz, urteak joan ahala behiendako proiektua ere egin genuen. Lan baldintzei begiratuz, 1985. urtean aldaketak sartzen hasi ginen; asteburuetan jai izaten hasi ginen, neguan goiz eta arratsaldeko ordutegiak izaten... Fabrikarekin alderatuta bi eredu desberdin badira ere, hobekuntzak nabarmenak izan ziren; mekanizazioa, genetikan hobekuntzak, soldata ona...

Aurrera atera zinetela ikusten da...

Urteen poderioz gauzak asko aldatzen joan ziren; hainbat jende berriz lanera itzuli zen, elkarte askotan sartu ginen, laneko zenbait alderditan puntakoak izan gara.

Jesus Azpiroz, Lekunberriko etxe aurrean





BEATRIZ OCHOTORENA, LIZASOKO BASERRI ESKOLAKOIA

“Edozein jarduera motara irekiak gaude, betiere Fundazioaren baldintzak betetzen baditu”

Herria edo hiria?

Nire ustez herri batean bizitzea hiri batean bizitzea baino atsegingarriagoa da, besteak beste, zerorrek prestatzen dutuzuna zerorrek jaten ahal duzulako. Hirietan modu bakarra dago bizitzeko; landa inguruak, berriz, aukera ematen dizu lurra lantzeko, abereak hazteko... halako moldez lurra berak ematen baitizu bizitzeko behar duzuna. Jakina, beti beharko duzu zerorrek egin ez dezakezun zerbait edo erosi beharko duzun zerbait. Horrek lana eta konstantzia eskatzen du, baina saria oparoa da emaitzak ikusten dituzunean.

Nire kasuan, ez dut hiria faltan botatzen, ez bada agiriak egitea eskatzen duten gaietarako, arropa edo bailaran ez dauden bestelako materialak erosteko. Hori bai, emakumea edo gizona izanda, garrantzitsua da gidabaimena izatea, beharra baldin badago...

Dagoeneko urte bete baserri eskolarekin...

Ultzama Fundazioa 2013ko abuztutik existitzen da, eta hiru helburu argi ditu: galtzen ari diren ohiturak ezagutaraztea, bailaran turismoa sustatzea, eta lana ematea sozialki baztertuak izateko arriskuan dauden edo desgaitasunen bat duten pertsonen aurteko irailetik, Nafarroako Gobernuak irabazi asmorik gabeko fundazioztat hartu gaitu, horrek emakidak jasotzeko aukera ematen digu, eta horiek errenta aitortpenen kenkari gisa agertzeko aukera ematen die emaleei. Hori guztia, bai enpresendako bai partikularrendako. Eskatera egin dugu (horretarako oinarriak betetzen baititugu) Nafarroako Gobernuaren Mezenasgoari

buruzko Legean sartzeko. Horren bidez, enpresak eta partikularrak erakarri nahi ditugu gure proiektua bultzatzeko eta ahalik eta jende gehien laguntzeko.

Nola finantzatzen duzue proiektua?

Emakidez gain, fundazioaren diru iturriak dira Ultzama Baserri Eskolan saltzen diren sarrerak eta hemen dagoen dendan saltzen diren bertako produktuen salmenta.

Granjak ere balio du lehen aipatu ditugun helburuak lortzeko, bisitetan azalpenak ematen ditugu, bailarako turismoa sustatzen dugu, eta, horretarako, langileak behar dira (granja erakutsiko duten gidariak, garbitzaileak, mantentze lanak egiteko langileak, udalekuak... eta granjak egiten dituen erosketak, hala nola, belarra, lastoa, pentzua, albaitaritza zerbitzuak, eraikuntzak...).

Beste gauza batzuk ere antolatu dituzue:

Kontratzen ahal diren beste jarduera batzuk ere baditugu, adibidez, artisauek kontratatzen dira (sukaldira tailerrak, ile-mozteko tailerrak, jezte tailerrak, mamia edo gaztanbera eta gazta egiteko tailerrak, egurra lantzekoak, xaboia egitekoak...) eta jarduera paraleloak ere bai, hala nola, Slow Food (duela gutxi egin genuen lehen azoka), produktuak dastatzea, abereak heztea, eta beste mota batzuetako feriak.

Irekita gaude edozein jarduera egiteko, betiere Fundazioaren baldintzak betetzen baditu; hortaz, Ultzama Baserri eskola horren beharra dutenen esku dago.



Irulegiko mendian guraso eta haur ETB3 eskatzen. Izagaondoa eta Arangurengo mugan dago Irulegi.

Tortugas Ninja (II)

Aurreko alean aipatzen genuen nola ETB3, haurrendako den telebista ez dela ikusten Nafarroan. Hala ere, nonbait Erribera aldean edo, ikusten omen da. Hala...

Lehenengo igande batean Etxalekun omen zebilen familia bat, senar-emazte, beren haur ttikiakin. Adineko etxalekuar batzuk han nonbait euskaraz hizketan eta haur haietako batek hala esan omen zion bere amari: Mama, mama, hablan como las tortugas ninja. Ribaforadakoa bide zen familia hori. Han nonbait ETB3 ikusteko aukera badute, guk, hemen ez duguna.

ETB3 ez da ikusten, gure haurrak beren etxeetan heroi erdaldunak ikusten dituzte, beste aukerarik ez baitago. Eta kontu honek baditu 7 urte, 2008. urtean pasa baitzen ETB1etik ETB3ra haur programazio guzia.

Eta guk, gurasook, euskaltzaleok, euskaldunok, zer egin dugu gure haurrak telebista euskaraz ikus dezaten? Zazpi urte joan dira, umeak gero eta erdaldunago eta... Honela segitzen badugu, beste zazpitan zazpi ere pasako dira eta gure haurrak gaztaroan eta zahartzaroan ere sartuko dira, erdaraz garbi-garbi mintzatzen. Ez dezakegu zerbait egin? Ez al dago gure esku uholde honi topo zerbait jartzerik?


Nik marrazki bizidunak ez dut inoiz ikusi baina go-goan dut Dragoi Bola eta Shin Chan heroea gure haurrek ikusten zutenean, edo hobeki esan, marrazki bizidun programa hartako sintonia belarrian dut. Ezin hobekiago datorkit gaurko Ardo frexkoa dastatzeko. Xorta bat bederen: Goazen lagunok, amets betean, dragoi bola bila, batera. Orain badaikit, nongo zuloan dagoen altxorrik ederrena...

Bai, orain bertan altxorrik ederrena ez bada ere, altxorra ETB3an dugu. Altxorra gure zain dago, toki jakinean gainera. Ez duzue esanzen ardo frexko asean gaudenik ezta? Erdal telebistako ardo mikaztuekin ez al dugu aski? Ekinen diogu altxorra gurera ekartzeko?



Eta Shin Chan Jakue bidean.





Tenemos que hablar de Kevin

FREDO ORANGE



ANAGRAMA

Hitz egin beharra

LIONEL SHRIVER

Estatu Batuetan idatzi zuen 2003an, 2005ean Ingalaterran edozein ingelesez idatzitako eleberritarako Orange sari ospetsua jaso zuen, eta urte berean filma egin zuten, eta BBCR adio 4 irratan emititu zen, 15 minutuko 10 saiotan. Espainian 2007an argitaratu zen.

Eva bera bezalako hiritar zorionsuendako bidaia-giden editorea da. Duela urte batzuk ezkondata dago Franklinekin, publizitateko argazkilariarekin; zalantza handiekin, baina berrogei urtetik gertu seme-alabak izatea erabaki zuen. Eta zalantzazko erabaki horren emaitza Kevin izanen da. Baina, ia hasieratik familia horrek ez du hiriko klase ertain zorionsuaren mito familiarren antzik. Evak sentitzen du Franklin bere amatasunaz jabetu dela eta bera jaiotzeaz dagoen semearen edukiontzi huts bihurtu duela. Eta Kevin ohiko ume zaila da, bere negarrekin torturatzen duena, eta jan nahi ez duena. Umezainen terrore bihurtuk oda, nerabe izugarria, antiheroia zeinari soilik interesatzen baitzaio gaiztakeriaren edertasuna.

Aurten irakurri dudana libururik onenetariko bat da. Liburu harrigarria da, gai garrantzitsu batzuei buruz hausnartzeko aukera ematen duena, hala nola, amatasuna, seme-alaben heziketa, seme-alaben ekintzetan gurasoek duten erantzukizuna. Psikologiaz beteriko liburua. Beste gai garrantzitsu bat da eskoletako indarkeria, berriki Estatu Batuetako institutuetan gertatu diren sarraskiak, non kausa batzuk elkartzen diren, besteak beste, armak izateko legaltasuna. Bidean, gizarte estatubatuarren kritika egiten dio, eta gizarte hori ez da onik ateratzen kritika horretatik.

Liburu zirraragarria da, baina abentura asko gertatzen direlako, baizik eta sentimenduz eta emozio on eta txarrez betetako liburua delako. Ezinezkoa da irakurtzea eta epel gelditzea.

Bizi osoa gogoratuko duzun liburu horietako bat da.



Atxiki sekretua

PATXI ZUBIZARRETA

Gorde ezazu ongi!

Paperezko altxor hau eskutartean hartzera gonbidatzen zaituztegu, Patxi Zubizarretaren "Atxiki sekretua" liburuan murgiltzera. Haurrei zuzendutakoa bada ere, adin guztietako irakurleek gozatzeko modukoa da.

Istori honetako protagonista Joana izeneko neskatua dugu, bizimodu arrunt samarra daramana: ikastolara joan eta etxera itzuli, nebarekin ika-mikan aritu eta gurasoen komeriak isilka-misilka entzun... Arrunta zen, bai, harik eta Graziana izeneko bizilagun zaharrak bere mundu txikitik aterako duen arte. Sorgin horren eskutik bidaia liluragarriak egingo ditu Joana txikiak: jentilak eta sorginak ezagutuko ditu, lamiak eta aztiak, istorio eder nahiz beldurgarriak. Halaber, hazten doan heinean neskatoak ikusiko du bizitza errealean ere badirela komeria dezente, eta tamalez, munstroak ere edozein txokotan gorde daitezkeela...

Kontakizunean zehar, gure ondare kultural oparotik hartutako hainbat kondaira, esaera zahar, abesti eta ipuintxo agertzen dira. Irakurle gaztetxoek euskal mitologiako pertsonaiak ezagutzeko parada izango dute; eta adinduagoek, berriz, aspaldi entzundako istorio hura birgogoratzeko aukera, memoriak bihotza berotzen digun une horietaz gozatu. Horregatik deitzen dugu altxorra, eta horregatik da guztiondako gomendagarria.

Autorea ez da berria euskal literaturan. Zubizarreta (Ordizia, 1964) idazle oparoa dugu batez ere haur nahiz gazteei zuzendutako kontakizunetan: esparru honetan hain zuzen 33 obra plazaratu ditu, eta Euskadi Literatura Saria irabazi du bitan. Bestalde, ezin dugu ahaztu liburu honi irudiak jarri dizkion marrazkilari paregabea, Elena Odriozola. Bere estilo finaren bidez ipuineko instant bereziak hartu eta irudietara pasatu ditu, hitzez adierazi ezin den "hori" marrazkien bidez ederki islatuz.

Elkar argitaletxeak plazaratutako liburu hau negurako gozamen iturria izan daiteke, Olentzerori eskatzeko opari ederra. Sorginei buruz gehiago jakin nahi al duzu? Ba murgildu zaitetz bere orrialdeetan... baina kasu! Egon isilik, atxiki sekretua!

Mikel Erroz, abeltzaina

"Nahiago dut makila hartu eta mendira joan ordenagailuaren aurrean egon baino"

Eltzaburuko abeltzain honek bigaulzama.es webgunean salmenta zuzena egiten du



Noiztik daramazu abeltzaintzan?

Betidunik. Serioski hasi nintzenetik 26 urte igaro dira jada, 20 urte nituenean hasi bainintzen. Denbora batez abeltzaintzarekin batera beste zenbait lan izaten nituen. Anaia nagusiak eramaten zuen esplotazioa, eta nik hari lagundu. Guztiok laguntzen genuen, baina anaiak beste lan batean hasi eta ni geratu nintzen esplotazioa eramaten. Lehen behi gutxiago bagenituen ere, lan gehiago hartzen zuen ukuilu zaharra genuelako. Garai hartan hiruzpalau egun kanpoan lan egin ondoren etxeko lana egiten nuen geroago. 2002. urtean egin genuen aldaketa osoa: ukuilu berria, makineria, inbertsio guztia...

Ohituta zaude orduan abeltzainaren bizimodura...

Ez dut bokazioa ez duen abeltzainik ezagutzen. Geroz eta gazte gutxiago aritzen da lan honetan. Baliteke gauzak dauden bezala egonda jendea holako lanera itzultzea, baina alderatzen badugu fabrika batean 8 orduz eta inbertsiorik egin gabe lan egitearekin, zaila da. Duela gutxi arteko soldatekin alderatuz, hori bai. Gauzak gaizki egonda ere, zaila ikusten dut jendea ogibide hauetara itzultzea; halere, jatekorik ez baduzu dena da posible...

Mundu hau goitik behera aldatu da. Nik ez nuen ezagutu duela 60 bat urteko Eltzaburu hura, baina badakit etxe guztietan animaliak zeudela; menditik zerbait ateratzen zuten, baratza zituzten... Lana areagotu eta berezitu egin da. Gaur egun bolumen handia ez baldin baduzu, ez zaizu jateko adina ailegatzeko.

Horri buruz galdetu nahi nizun, Internetaren bidez saltzen duzuela haragia...

Denbora mugatua da; familia eta lanak denbora asko eskatzen dute, eta horretaz gain behar duzu salmenta zuzen horri denbora bat eskaini. Bigaulzama deitzen da gure webgunea. Euskarazko izen erraza bilatu genuen. Hasi nintzenetik antzeko salmenta erritmoa mantentzen da; urtean 10-12 txekor saltzen ditugu. Salmenta honi denbora ezin eskaini nabilenez, ezin etekin gehiago lortu. Onura interesgarriak ditu sistema honek; zuk prezioa ezartzen duzu eta ez dago bitartekaririk.

Nola funtzionatzen du erosketa egiteko?

Hasiera batean dena webgunetik bideratua egon zedin nahi banuen ere, jendeak telefonoz deitzen du askotan. Deitzen dizute eta galderak egin, zalantzak planteatzen dizkizute... Salmentari ez diozu oztoporik jarri behar. Sareko gunea informazioa eta salmenta batzen duen plataforma bat da. Haragia sortaka saltzen dugu; 10 kiloko multzotan. Jendeak oraindik ere telefonoz eskatzen ditu gauzak, publizitate eta promoziorik egiten ez dugunez ahoz aho zabaltzen da negozioa. Castello, Madril, Sevilla eta holako lekuetatik eskatzen dute haragia; interesgarria da Sarean gauza hauek egitea, horrela galdetu dezakezulako nola ailegatu diren gurera edo nork gomendatu dion haragia... Interesgarria da erlazio zuzena izatea, halere eguneroko lan denbora eskatzen dut, eta nahiago dut makilarekin mendira joan ordenagailuaren aurrean egon baino. Sarearen bidez saltzen dudana kopurua txikia da oraindik jendeak ez dakielako existitzen garenik.

ZORIONAK ZUEI!



BENITA

BEÑAT



TXUMARI ETA PATXI



JOSU



Irune



gerardo



SUSTRAI



LETIZIA



MIRENTXU

AMUARRAIA

Aldizkariaren atal berezia da hau. Animaliei buruz hitz egiten bada ere, txorakeria galantak irakur daitezke. Ez da gaurko kasua, txintxo-txintxo informazioa eta egunerokotasuna ekartzen dizugulako. Kontua da Basaburuko Udaletik jakinarazi zigutela Aizarozko uherkan amuarrainendako bide bat irekitzen ari zirela. Herri honetako uherkan zulo antzeko bat dago paretaren behealdean. Orain uhate bat jarriko du Nafarroako Gobernuak, eta udazkenean irekia egonen da amuarrainak ibaian gora joan ahal izateko. Bitxia albiste. Atal honetarako aproposa. Bagenuen atala beteta!

Amuarraina platerean bakarrik ikustea gustuko duten horiek irakurtzeari uzten ahal diote. Ikertzen aritu naiz, baina ez dut inon aurkitu errege bazkaria zela konfirmatzen zuen idatzirik. Gurean betidanik esan da Nafarroako Erregeek jaten zutela. Ez dakit Antso Azkarrak eta familiak holako arrainik jatea gustuko zuten, baina argi dago urdaiazpikoarekin frijitua Nafarroan oso errezeta ohikoa dela. Baliteke arrazoietako bat izatea gurean ur garbi eta gardenetako ibaiak daudela, eta bertan arrain hauek gustura bizi direla. Poltsikoari begira jartzen bagara, nahiko merkea da erosteko eta egia esan, goxogoxo dago!

Ez gara bazkariari buruz hitz egitera etorri, amuarrainari buruz baizik. Beti bezala hemen doaz zenbait bitxikeria:

Aldakorra
Batuetan, amuarrainari arrainen kamaleoia deitzen zaio. Hori horrela da mimetismoarako duen erraztasunagatik. Bere kolorea aldatzen da urteko sasoiaren, eguzkiaren argiaren, duen adinaren eta are aldaratearen ariora ere. Arriskuan sentitzen denean, amuarraina kolorez aldatzen da bat-batean.

"Hazten" erraza
Amuarrainaren hazkuntza aspaldi egiten den jarduera da, Galiziako ibaietan, esaterako, 1129tik; horixe da akuikulturako instalazioetan arrainak hazteko lehendabiziko erreferentzia idatzia, hain zuten ere Sar ibaiaren ertzetan. Arrain honen beste bitxikeria bat da 6.000 arrautza errutera ailegatzen ahal duela.

Koloreak
Amuarrain marroiek eta ortzadar kolorekoek espektroan guretako ikusezinak diren kolore mailak antzematen dituzte, eta gorria da hobekien bereizten duten koloreetako bat. Hala ere, ezin da frogatu animaliek ikusten duten kolorea bat datorren guk kolore berekotzat jotzen dugunarekin.

Amerikako datu batzuk
Gaur egun, Estatu Batuetan, 9 miloi dira amuarraina harrapatzen aritzen diren arrantzaleak, eta joan zen urtean kirol horretan zuzenean 227 milioi dolar gastatu zituzten. Yellowstone ibaian dagoen politika da amuarraina harrapatu eta bizirik askatzea, horrela saihesten dute ibaia hutsik gelditzea. Kalkuluen ariora, parkean dagoen amuarrain bakoitza 10 aldiz harrapatu eta askatzen da denboraldi batean.



ZEIN ANIMALI IKUSI
IDATZI PULUNPE@GMAIL

NAHI DUZU
COM HELBIDERA!

ATAL HONETAN?



Gure alderdian **Urrian** izan ziren **Jaiotzak eta heriotzak**

JAIOTZAK

LANTZ
Tasio Beunza Yaben, Lantzen jaioa, 2014.10.12an. Ruben eta Amaia ren semea.

ULTZAMA
Maitena Larrainzar Sola, Arraitzen jaioa, Migelen Bentan, 2014.10.03an. Patxi eta Monicaren semea.



Maitena gurasoekin



Tasio eta bere ama.

ZORIONAK JAIOBERRIEN GURASOEI!

HERIOTZAK

BASABURUA:
OROKIETA:
Escolastica Biurrarena Aldanondo, *Joxe Ramon* en etxeko etxekoandrea, 2014.10.11n hil zen.
Joaquin Alsua Urquiola, *Arotzenekoa*, 2014.10.14an hil zen.

ULTZAMA:
AUZA
Victorino Guelbenzu Goyenaga, nagusia, 2014.10.29an hil zen.
ALKOTZ
Maria Isabel Villanueva Erviti, *Matxinbarneko* alaba, herriko komentuan moja zegoen eta bertan



Escolastica



Joaquin



Victorino



Isabel

GURE OROIMENEAN IZANEN ZARETE

Jarri zaituzte kontaktuan gurekin iragarkia sartzeko!



energia berriztagarriak
tedesna
energías renovables

- Instalaciones Solares Térmicas
- Instalaciones Solares Fotovoltaicas
- Calderas y Estufas de Biomasa
- Ahorro y Eficiencia Energética
- Eguzki-instalazio termikoak
- Eguzki-instalazio fotovoltaikoak
- Biomasa galdarak, berogailuak eta lurreko suak
- Aurrezki eta eraginkortasun energetikoa

☎ 685 907 634 · 685 907 635 ✉ tedesna@tedesna.com 🌐 www.tedesna.com

DABID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL.: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberitzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ

VENTA DE LEÑA A DOMICILIO

URTE OSOAN ZEHAZ

☎ 635 90 91 95
✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua

EGURRA
EXPRES

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu

Internet etxean arazorik gabe!

- Satelite bidezko Internet instalatzaileak. Benetazko 20 mega, hilean 25,90€-tik aurrera. Jarri ezazu Internet zure etxean, kokapena arazoa izan gabe.
- Telebista antenen instalazioak eta konponketak.
- Canal Plus-eko banatzaileak eta instalatzaileak. Eskaintza bereziak bezero berrientzat.
- Atezain automatikoak.

Tel: 848 410 500
WWW.SENATEL.ES
info@senatel.es

SENAtel
Telecomunicaciones

ZOZKETA MUNDIALA 2014

SARIEN ZERRENTA OSOA

SARI BEREZIAZ GAIN ETA AURTENGO ZORTZI ZERRIEZ AT, III SARI BANATUKO DITUGU. DENETARA 120 SARI EDER. IAZ BAINO GEHIAGO ETA HOBEAK. HEMEN DUZUE ZERRENTA OSOA

ZERRIAK

8 zerri, 8

BAZKARIAK

11 bazkari edo afari bikoitz, inguruko ostatuetan.

GAZTAK

23 gazta, bertako gaztagileek eginak

BESTE ESNEKI BATZUK

-Dorrea gaztandegiak eskaini 20 gazta taula.
-Bel-ek eskainitako 15 pakete-txo.
-Goshuak eskaini 3 esneki sorta.
-Postres tradicionales de Ultzama eskainitako 2 esneki sorta.

BERTAKO ERLEZAINENK ESKAINIAK

-Joxe Manuelek: 10 kilo.
-Isabel Telleriak: 5 kilo.
-Arantxa Puignauk: 4 kilo.

EROSKETA BONOAK

-Apeztegiberriak: 10 euroko bost bono.

-Auzako harategiak: 20 euroko bi bono.

ILE-APAINDEGIAK

-Eskualdeko ile-apaindegiek eskaini 4 bono.

BESTE JAKI BATZUK

-Mentxu Picabeak: 2 tarta.
-Latasako Plazaola gozotegiak: 2 pizza.

BESTERIK

-Javi Barbajero, bere autoeskolan bi orduko erakustaldi bat.
-Angel Beunzak zizelkatutako pieza bat.
-Mari Sol Melerok zizelkatutako pieza bat.

SARI BEREZIA

-Joxe Echarrik eskainitako makil edo bastoi paregabea.

OHARRA

Baliteke zozketa egunean beste sariren bat gehiago jartzea. Hori antolatzaileen esku gelditzen da.